



ORDEN 17 DE FEBRERO DE 2020, DEL CONSEJERO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA, POR LA QUE SE ESTIMA LA SOLICITUD DE CLASIFICACIÓN COMO CENTRO DE TECNIFICACIÓN DEPORTIVA EL CENTRO DE TENIS DE MESA SONIA ETXEZARRETA DE IRÚN.

El Decreto 203/2010, de 20 de julio, del Deporte Alto Nivel, prevé, en su artículo 31 y siguientes las características técnicas, los requisitos y el procedimiento para la clasificación de Centros Deportivos de Alto Nivel.

El artículo 33 de dicho Decreto establece que la clasificación de los Centros Deportivos de Alto Nivel se realizará mediante Orden de la Consejera o Consejero competente en materia de Deporte, del Gobierno Vasco, previa tramitación del procedimiento de clasificación que se describe en los párrafos siguientes.

En fecha 11 de febrero de 2020, el Gerente de la Instalación deportiva presentó la solicitud de clasificación de Centro de Tecnificación Deportiva para el Centro de Tenis de Mesa “Sonia Etxezarreta”.

El artículo 31 del Decreto de referencia establece dos tipos de Centros Deportivos de Alto Nivel: los Centros de Alto Nivel (CAN) y los Centros de Tecnificación Deportiva (CTD). Dicho artículo define estos últimos como aquellas instalaciones deportivas de titularidad pública o privada, cuya finalidad es ser centro de entrenamiento para modalidades deportivas concretas, mediante el establecimiento de grupos de edad seleccionados por sus resultados deportivos, para realizar una preparación intensiva en esa modalidad deportiva y cuyo objetivo principal es facilitar el acceso de las y los deportistas a los niveles de competición más elevado.

Por su parte, el artículo 32.2 fija los requisitos de dichos Centros, siendo éstos los siguientes:

1. Contar con instalaciones deportivas de interés general.
2. Estar dotados de instalaciones deportivas específicas e idóneas, en función de la modalidad deportiva de que se trate.
3. Podrán estar dotados de Residencia. De no disponer deberán posibilitar la residencia a los y las deportistas en un centro adecuado y cercano.
4. Equipo técnico deportivo cualificado, que estará encabezado por una persona licenciada en Ciencias de la Actividad Física y Deporte, o titulación académica equivalente especialista en la modalidad deportiva que caracterice al centro.
5. Disponer de un servicio médico-deportivo, dirigido a la prevención y curación de lesiones y enfermedades y readaptación al esfuerzo.

6. Disponer de los servicios administrativos necesarios para la buena gestión del centro.

Examinada la documentación que acompaña a la solicitud, y realizada visita de inspección de las instalaciones se constata el cumplimiento de dichos requisitos

En cuanto al procedimiento para la clasificación de dichos centros, es el que se consigna en el artículo 33 del Decreto 203/2010, de 20 de julio, del Deporte Alto Nivel. En él se establece que la clasificación de los centros deportivos de alto nivel se realizará mediante Orden de la Consejera competente en materia de Deportes del Gobierno Vasco, previa la tramitación allí establecida, que se describe a continuación:

- a) Escrito de solicitud identificando a la entidad titular del centro deportivo y manifestando en interés de dicha entidad en la citada clasificación.
- b) Plano de situación de los terrenos e instalaciones y acreditación de la titularidad de los mismos.
- c) Informe explicativo de la organización funcional y objetivos del centro.
- d) Plan de utilización deportiva. Previsión nominal de deportistas de alto nivel que son o pueden ser usuarios y usuarias del mismo.
- e) Detalle de instalaciones deportivas y servicios de que dispone el centro.
- f) Presupuesto de explotación y de inversiones para el año en curso.

En lo que respecta a la tramitación, la entidad solicitante ha cumplido plenamente con lo establecido en el Decreto de referencia.

A la vista del expediente y realizada visita de inspección por parte de los servicios técnicos del Centro de Perfeccionamiento Técnico de Fadura (Getxo), Servicio Administrativo de la Dirección de Actividad Física y Deporte, se puede concluir que la solicitud presentada acredita reunir los requisitos mencionados, habiendo seguido el procedimiento establecido para su tramitación.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero.- Estimar la solicitud de clasificación como centro de tecnificación deportiva (CTD) para el **Centro de Tenis de Mesa Sonia Etxezarreta**, al haber acreditado que cumplen los requisitos exigidos en el art. 32. 2 del Decreto 203/2010, de 20 de julio, del Deporte de Alto Nivel y haberse ajustado al procedimiento establecido en el art. 33 del mismo texto normativo.

Segundo.- Dicho reconocimiento tendrá una vigencia de un año, prorrogable por periodos anuales, a petición de la persona o entidad interesada y de forma indefinida, previa realización de la oportuna auditoría deportiva, tal como lo establece el art. 34.2 del Decreto 203/2010, de 20 de julio, del Deporte de Alto Nivel.

Tercero.- Notifíquese a la interesada, a los efectos oportunos.

Cuarto.- Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Cultura y Política Lingüística en el plazo de un mes, a contar desde su notificación, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde su notificación, de conformidad con lo establecido en la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de febrero de 2020



El Consejero de Cultura y Política Lingüística
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI



**AGINDUA, 2020KO OTSAILAREN 17KOA, KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ BAIESTEN BAITA
IRUNGO SONIA ETXEZARRETA MAHAI-TENISEKO INSTALAZIOAK
KIROL-TEKNIFIKAZIORAKO ZENTRO GISA SAILKATZEKO ESKAERA**

Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren 31. artikuluaren eta hurrengoetan ezarrita daude goi-mailako kirol zentroek bete beharreko baldintzak, haien ezaugarri teknikoak eta sailkatzeko prozedura.

Dekretu horren 33. artikuluak dio Eusko Jaurlaritzan kirol-atloko eskumena duen sailburuaren agindu baten bidez egingo dela goi-mailako kirol-zentroen sailkapena, ondoko lerroaldeetan zehazten den sailkapen-prozedura izapidetu ondoren.

2020ko otsailaren 11n, kirol-instalazioaren gerenteak eskaera bat aurkeztu zuen, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzan, Irungo Sonia Etxezarreta mahai-teniseko instalazioak kirol-teknifikaziorako zentro gisa sailkatzeko.

Dekretuaren 31. artikuluak bi eratako goi-mailako zentroak bereizten ditu: goi-mailako zentroak (GMZ) eta kirol-teknifikaziorako zentroak (KTZ). Artikulu berean kirol-teknifikaziorako zentroen definizioa dator: titulartasun publiko edo pribatuko kirol-instalazioak dira, eta kirol-modalitate jakin batzuetarako entrenamendu-zentro izatea dute helburu; bertan, adin-taldeak eratuko dira kirol-emaitzen arabera, kasuan kasuko kirol-modalitatean prestakuntza intentsiboa lantzeko; helburu nagusia da laguntza ematea kirolariak lehiaketa-maila goreneta errazago ailega daitezen.

Dekretuko 32.2 artikuluak adierazten du zer baldintza bete behar dituzten zentro horiek:

1. Euskal Autonomia Erkidegoarentzat interes orokorrekoak diren kirol-instalazioak izatea.
2. Kirol-instalazio espezifiko eta egokiak izatea, kasuan kasuko kirola egiteko.
3. Kirolarentzako egoitza izan dezakete. Halakorik izan ezean, egoitza bat bilatu beharko diete kirolariei hurbil dagoen zentro egoki batean.
4. Kirol-talde tekniko kualifikatu bat izatea; taldeko burua Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizenziatura edo titulazio akademiko baliokidea duen pertsona bat izango da; zentroak lantzen duen kirol-modalitate nagusian aditua izan beharko du pertsona horrek.

5. Kirol-zerbitzu mediko bat izatea; zerbitzu horren egiteko lesio eta gaixotasunak prebenitu eta sendatzea izango da, bai eta ahaleginak egitera berregokitzten laguntzea ere.

6. Zentroa behar bezala kudeatzeko beharrezko administrazio-zerbitzuak izatea.

Eskerarekin batera aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta ikuskatze-bisita egin ondoren, ikusi da baldintza horiek bete egiten direla.

Zentroak sailkatzeko prozedura Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren 33. artikuluaren xedatuta dago. Artikuluak dio Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuaren agindu baten bidez egingo dela goi-mailako kirol-zentroen sailkapena, bertan zehazten den sailkapen-prozedura izapidetu ondoren.
Alegia:

- a) Eskabide bat, kirol-zentroaren entitate titularra zein den azaltzen duena eta entitate horrek sailkapen horretan sartzeko interesa duela adierazten duena.
- b) Lur-sailen eta instalazioen kokalekuaren planoa, eta horien gaineko titulartasuna egiaztatzen duten agiriak.
- c) Zentroaren antolamendu funtzionala eta helburuak jasotzen dituen azalpen-txostena.
- d) Kirol-erabilerari buruzko plangintza. Aurreikuspenen arabera, zentroaren erabiltzaile diren edo izan daitezkeen goi-mailako kirolarien zerrenda.
- e) Zentroak dituen kirol-instalazioen eta zerbitzuen inguruko xehetasunak.
- f) Ustiapen-eta inbertsio-aurrekontua, uneko urtekoari dagokiona.

Izapidetzeari dagokionez, entitate eskatzaileak guztiz bete ditu erreferentziako dekretuak eskatzen dituen baldintzak.

Espedientea ikusi ondoren, eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren Administrazio Zerbitzuko Fadurako (Getxo) Teknika Hobekuntzarako Zentroko zerbitzu teknikoek ikuskatze-bisita egin eta gero, ondorioztatu da aurkeztutako eskabideak baldintza guztiak betetzen dituela eta izapidetzeko jarraitu beharreko prozedurari jarraitu zaiola.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Baiestea instalazioaren gerenteak egindako eskaria, Irungo Mahai Teniseko Sonia Etxezarreta instalazioak kirol-teknifikaziorako zentro gisa sailkatua izateko dena, Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 2013/2010 Dekretuaren

32.2 artikuluaren baldintzak betetzen dituelako eta dekretu horren beraren 33. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu diolako.

Bigarrena.- Deklarazioaren indarraldia urtebetekoa izango da. Urtero beste urtebeterako luza ahal izango da, pertsona edo entitate interesdunak hala eskatuta, eta epemugarik gabe, dagokion kirol-auditoria egin ondoren, Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren 34.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Hirugarrena.- Interesdunari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Laugarrena.- Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekursoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten denetik aurrera, horrela dago-eta xedatuta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekursoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazten denetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 17a



Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI